



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINITASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# 2018ko MEMORIA

Ikerkuntzarako  
Zerbitzu  
Orokorrak, SGIker

[www.ehu.eus/sgiker](http://www.ehu.eus/sgiker)

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza  
Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak – SGiker  
Errektoretza eraikina  
Bizkaiko Campusa  
Sarriena auzoa, zk.g.  
48940, Leioa– Bizkaia  
Tel.: 94 601 50 50  
Webgunea: [www.ehu.es/sgiker](http://www.ehu.es/sgiker)

Eskerrak:

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. EGEF eta Europako Gizarte Funtseko laguntza programak. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.



Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren ikerkuntzaren laguntza unitateak, Zerbitzu Kartak, UNE-EN ISO 9001 eta UNE-EN ISO/IEC 17025 arauetan oinarritutako kalitate programa batean murgilduta daude.



---

\* Portadaren imagina: Iker de la Pinta Aresti, UPV/EHU.

|                                                                                            |     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. Sarrera.....                                                                            | 4   |
| 2. Egitura antolatzailea.....                                                              | 5   |
| 3. 2015-2018 Plan Estrategikoaren harira egindako jarduerak.....                           | 7   |
| 4. SGIker Kopurutan.....                                                                   | 23  |
| 4.1. Ikertaldeak ta kanpoko erakundeak.....                                                | 23  |
| 4.2. Zerbitzuak.....                                                                       | 26  |
| 4.3. Zientzia adierazleak.....                                                             | 26  |
| 4.3.1. SGIkerren aipamena duten zientzia argitalpenak.....                                 | 27  |
| 4.3.2. SGIkerren laguntzarekin sortutako argitalpen zientifiken aipamenak patenteetan..... | 30  |
| 4.3.3. SGIkerrek lagundutako doktorego tesiak.....                                         | 32  |
| 4.3.4. Ikerketa proiektuak.....                                                            | 34  |
| 4.3.5. SGIkerrek biltzar, foro eta mintegietan izan duten presentzia.....                  | 34  |
| 4.4. Internazionalizazioa.....                                                             | 36  |
| 4.5. SGIkerren prestakuntza eskaintza.....                                                 | 39  |
| 4.6. Ikerketaren ebaluazioan parte hartzea.....                                            | 46  |
| 4.7. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak.....                                     | 47  |
| 4.8. SGIker hedabideetan.....                                                              | 50  |
| 4.9. Ikertzaileen gogobetetasuna.....                                                      | 53  |
| 4.9.1. Gogobetetasun inkestaren emaitzak.....                                              | 53  |
| 4.9.2. Emandako prestakuntzarekiko gogobetetasunaren jarraipena.....                       | 57  |
| 4.10. Emaidza ekonomikoak.....                                                             | 60  |
| 5. 2019-2020. tarifak.....                                                                 | 62  |
| 5.1. Sarrera.....                                                                          | 62  |
| 5.2. Tarifa Orokorrak.....                                                                 | 63  |
| 5.3. Materialak eta Azalerak.....                                                          | 64  |
| 5.4. Biomedikuntza eta Bioteknologia.....                                                  | 78  |
| 5.5. Ingurumena.....                                                                       | 99  |
| 5.6. Berme Teknologikoa.....                                                               | 102 |
| 5.7. Zerbitzu Komunak.....                                                                 | 111 |

# 1. Sarrera

---

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), Euskal Autonomia Erkidegoan eta inguruan ezagutza sortzen duen iturri nagusia denez gero, inbertsio handiak egin ditu azpiegitura zientifiko-teknologikoan, eta bertako teknikarien egonkortasuna sustatu du SGiker Ikerketako Zerbitzu Nagusietan. Hala, UPV/EHUK unibertsitateko zientzia komunitatearen eta Euskadiko ingurune sozioekonomikoaren ikerketa jardueran lagundu nahi du orain eta etorkizunean, Horizonte 2020 programen eta orain baita Europako 2030 programen ildoei jarraikiz lan eginez.

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak, SGiker, UPV/EHU-ko Ikerkuntzarako Errektoreordetzan integratuta daude, eta I+D+i-a laguntzeko bokazio sendoa dute. Kualifikazio altuko pertsonal teknikoa, gehienbat doktoreak, eta azken belaunaldiko azpiegitura zientifiko-teknologikoa konbinatzen dituzte.

Bere helburua, komunitate zientifiko-teknologikoak, analisi, metodologia berrien garapena, aholkularitza eta prestakuntza, moduko baliabideez hornitzea da, beharrezkoak hauek, gizarteak eskatzen dituen erronkak gainditzeko.


Bere lehentasunen artean, ezagutza sortzeko hari bide globalak ezartzea, edota teknologien konbinazioa sustatzea ikerlariak disziplina anitzeko erronkak ekiteko, daude, garapen sozioekonomikoari laguntzen dion agente bezala, bere papera sendotuz.

Gure balore estrategikoei dagokienez, azpimarratuko diren baloreak:

- ✓ Gaitasun altuko pertsonak (doktoreak) eta euren prestakuntza jarraia.
- ✓ Ezagutza zientifikoaren dinamizazioa eta sozializazioa.
- ✓ Eraginkortasuna eta kalitatea egiten ditugun analisietan.
- ✓ Eraginkortasuna teknologia eta baliabideen erabileran.
- ✓ Bikaintasuna judeaketan eta gizarte berrikuntzan.
- ✓ Ezagutzaren sormena eta kualifikazio altuko prestakuntza bere espezialitatean.
- ✓ Berdintasuna, meritua eta lehiakortasuna.
- ✓ Internazionalizazioa.
- ✓ Gardentasuna kudeaketa prozeduretan.

## 2. Egitura antolatzailea

SGIkerrek azpiegitura sendoa eta kualifikazio handiko langileak dituzte beste unitate eta/edo zerbitzu batzuetan banatuta; unitate eta zerbitzuok, halaber, UPV/EHUren hiru campusetan banatuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan. SGIkerren organigrama funtzionalaren barruko langile propioek (1. figura, 1. taula) kudeatzen dituzte unitate horiek eta haien azpiegitura zientifiko-teknologikoa. Guztira, 46 lagunek osatutako plantilla teknikoa dago, eta horietatik 37 doktoreak dira, gainera.



1. Irudia. SGIkerren organigrama.

### Gune Zientifikoa

## GUNEA

## ZERBITZUA

|                                            |                                                                                    |
|--------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Barne Teknologikoa</b>                  | Analisirako Zerbitzu Zentrala (Arabian eta Bizkaian)                               |
|                                            | Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Berezia (Raman-MARLAB)                   |
| <b>Materialak and Azalerak</b>             | Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa                                             |
|                                            | Laser Tresna                                                                       |
|                                            | Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia                                           |
|                                            | Neurri Magnetikoak (Bizkaian eta Gipuzkoan)                                        |
|                                            | Microskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisa                               |
|                                            | Microskopia: Polimeroen Analisa                                                    |
|                                            | X-Izpiak: Gipuzkoako Unitatea; Molekulak eta Materialak; Arroak eta Mineralak; XPS |
|                                            | Erresonantzia Magnetiko-Nuclearra (3 Kampusetan)                                   |
| <b>Bioteknologia eta Biomedikuntza</b>     | Animaliategia (3 Kampusetan)                                                       |
|                                            | GEnomika: DNA Bankua; Gene Adierazpena; Sekuentziazio eta Genotipoa; Proteomika    |
|                                            | 3. Mailako Euste Biologikoaren Laborategia (NCB3)                                  |
|                                            | Mikroskopia Analitikoa eta Berezmen Handikoa Biomedikuntzan                        |
|                                            | Erradioisotopoak                                                                   |
|                                            | Entomologia Forensea                                                               |
| <b>Ingurumena</b>                          | Fitotronak eta Berotegia                                                           |
| <b>Zientzia Historiko eta Geografikoak</b> | Kartografi eta Informazio Sistemak-Zerbitzua                                       |
| <b>Gizarte Zientziak</b>                   | Zientziometria Unitatea                                                            |
| <b>Zerbitzu Komunak</b>                    | Ikerketari Aplikatu Informatika (Kalkulu Zientifikoa)                              |
|                                            | Berrikuntza eta Kalitate Unitatea                                                  |

1. Taula. Gune Zientifikoa eta SGikerren Unitateak.

Zientzia Arloko Unitateek askotariko esparruetako zerbitzuak ematen dituzte: Biomedikuntza eta Bioteknologia, Ingurumena, Materialen Zientziak, Gizarte Zientziak, Historiaren eta Geografiaren Zientziak, Laguntza Teknologikoa eta Zerbitzu Komunak.

### 3. 2015-2018 Plan Estrategikoaren harira egindako jarduerak

---

#### OE.1.- Metologia berritzaileak sortzea

---

##### L1.1. Zientzia Parkeko SGIker Unitateak (Martina Casiano Plataforma Teknologia eta Maria Goyri Animalia Bioteknologia Zentroa)

---

SGIkerrak 2016an hasi ziren instalazio berriak martxan jartzen, eta hori indartu egin da 2017an zehar ekipamendu berria sartzearekin bat. 2018an finkatzen jarraitu du prozesuak, ekipamendu handiak zein egunerokoan erabiltzeko ekipamendu txikiak abian jarritz. Nabarmentzekoa da "María Goyri" Animalia Bioteknologia Zentrora lekualdatu direla SGIkerren Genomikako Gene Adierazpen eta Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen unitateak. Handik emango dituzte beren zerbitzu guztiak.

Jarraian zehazten dira 2018. urtean zehar Zientzia Parkeko eraikin bakoitzean zein ekipamendu instalatu diren.

##### **"Martina Casiano" Teknologia Plataforma**

- Tandemeko masen espektrometriako sistema, bereizmen eta sentikortasun handiko kromatografia likidoko sistema bati akoplatutakoa (helburu lipidomiko eta metabolomikoak ditu).
- UV-vis-NIR espektrofotometroa, hainbat osagarri eta softwarearekin.
- Mikrouhin labearentzako digestorea.
- Balantza.
- Berogailua.

##### **"María Goyri" Animalia Bioteknologia Zentroa**

- DNA eta RNA txip nanofluidikoetan kargatzeko eta anplifikatzeko sistema bat, SNP genotipo azterketarako, gene adierazpenerako eta NGS liburutegiak automatikoki sortzeko.
- Azido nukleiko (DNA eta RNA) markatu gabeen analizatzaile automatiko bat.
- Denbora errealeko PCR bat, 96 eta 384 kizarako bloke trukagarriekin.
- Hutseko kontzentratzaile zentrifugoa (Speed-Vac).
- Sentsibilitate altua, super-bereizmena eta zelula bizia duen Mikroskopia Fokukide Espektraleko Sistema.
- Zelulen hazkuntzarako inkubagailua, tenperaturaren, hezetasunaren eta CO<sub>2</sub>rekin.
- Hodiak berotzeko termobloke lehorra.

##### **"Rita Levi" animaliategia**

Laster instalazio berria irekitzeko asmoz, SGIkerrak ekipamenduz hornitzen ari dira "Rita Levi" animaliategia. Besteak beste, ekitaldi honetan kirolfano bat martxan jartzeko behar den materiala erosi da:



- Mikroskopioa.
- Saguentzako estereotaxikoa, U formako oinarriarekin.
- Fluido en xurgagailu eramangarria.
- Isoflurano anestesiararen ekipoa.
- Trepanagailua.
- Sagui kirurgia egiteko tresnen kita.
- Mikroinjektorea.
- Tapaki bero-emailea.
- Bolen esterilizagailua.
- No frost hozkailu konbia.

### L1.2. Ekipamendua eguneratzea

---

SGIkerrek konpromisoa hartu zuten ikertzaile eta teknologoei puntako ekipamendu zientifiko eta teknologikoa emateko, beren jardura garatu dezaten. Hori dela eta, 2018. urtean, ekipamendu berria erosi eta zaharra berriro da hainbat zerbitzutan. Jarraian adierazten da zein ekipamendu erosi den:

**Arabako Analisisirako Zerbitzu Zentralak** Kuadrupolo Hirukoitza duen Masa Analizatzaile bat (ICP-QQQ) erosteko prozedura abiarazi du. Masa analizatzaile horrek aukera emango du bereizmen handiko aplikazio analitikoak garatzeko eta interferentziak ezabatzeke. Horrez gain, HPLCzko bonba kuaternario bat eta bideen autolagingailu bat erosi dira, eta horrekin berriro egin da 2004an erositako Tranpa Ionikoko analizatzailea duen Masa Espektrometriaren detektagailudun Likidoen Kromatografoa. Softwarea ere eguneratu egin da. Ekintza hori gauzatzeko bi ekipa informatiko erosi dira HPLC-DAD-IT sistemaren eta MassHunter-aren softwarea kontrolatzeko.

**X izpien zerbitzu orokorretako Molekulak eta Materialak unitatearen** ondarea handitu egin da; izan ere, Erreflektometria eta SAXS konfigurazioko lagin polikristalinoko difraktometro bat erosi dute. Horrek aukera emango du material funtzionalizatuak karakterizatzeko eta, horrela, composite eta multigeruza materialak aztertzeke. Horrelako materialak analizatuz gero, errazagoa izango da horiek gero industria beharretara egokitzea eta ikerketa materialen amaierako aplikazioetara gerturatzea.

Ikerketarako laguntza egokia eskaintze aldera eta bere eskaintza hobetze aldera, zerbitzu honek beharrezkotzat jo du Bruker D8 Advance lagin polikristalinoko X izpien Difraktometroa eguneratzea, X Izpiak sortzen dituen sistema, laginak eramateko plataforma eta detektagailua ordezkatzuz. Horrez gain, softwarea kontrolatzeko ekipamendu informatikoa ere erosi da. Horrela, konfigurazio optimoa lortuko da Bereizmen Altuko difrakzio neurriak egiteko.

**Genomikako Zerbitzuetako Gene Adierazpena eta Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen unitateek** errendimendu altuko Next-Gen Sequencing (NGS) plataforma bat sartu dute beren instalazioetan. Plataforma horrek aukera ematen du NGS teknologian oinarritutako esperimentazioaren pauso guztietan modu aktiboan parte hartzeke, eta era berean, etengabe handitzen ari den zerbitzu baten eskaerari erantzuten dio. Ekipamendu hori eskuratzeko, etenik gabeko elikadura sistema bat eta hiru ekipa informatiko erosi dira datuak tratatzeko.



**Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralak (BAZZ)** masen espektrometriaren detektagailua duen eta induktiboki akoplatuta dagoen plasma ekipo bat (ICP-MS) erosi du. Ekipo horrek aukera emango du sendotasun eta sentzibilitatea handia eskatzen duten aplikazio analitikoak inplementatzeko eta ISO 17025 kalitate arauari jarraikiz gaur egun eskuragarri dagoen akreditazioaren irismena handitzeko.

Horrez gain, BAZZek bere ekipamendura gehitu ditu Karbonoaren (C), Hidrogenoaren (H), Nitrogenoaren (N), Azufrearen (S) eta Oxigenoaren (O) neurria ahalbidetzen duen Analizatzaile Elemental Organiko bat, injektore automatikoarekin eta kontrol sistema automatizatuarekin, zerbitzuak 2011n erositako mota bereko analizatzaile baten osagarri gisa. Analizatzaile hura erosi zen gero eta eskaera handia zegoelako lagin solido eta erdi-solidoetan CHNSO analisiak egiteko (ISO 17025 arau pean), eta ekipo berri hau erosiz oraingo balidazio irizpideak hobetzea lortu nahi da eta, hala, eskaerei kalitate irizpide altuko erantzunak eskaini.

**Proteomika Zerbitzuak** Hutseko Kontzentratzaile Zentrifugo bat erosi du, zeina edozein motatako lagin biologikoak prestatzeko prozesuetarako erabiliko baita. "María Goyri" Animalia Bioteknologiarako Zentroko Genomika eta Proteomika Unitateko prestakuntza laborategi batean dago instalatuta, eta SGikerren gainerak unitateei ematen die zerbitzua, baita eskatzen duten ikertzaile eta teknologo guztiei ere.

**Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuak** ekipamendu txiki bat erosi du gaur egun duen ekipamendu handiko prestazioak hobetu ahal izateko. Honako hauek erosi ditu: tenperaturaren, hezetasunaren eta CO<sub>2</sub>-ren kontrola duen, zelulen hazkuntzarako inkubagailua, eskuzko platina bat eta kamera digitalaren irteeraren egokigailu bat Olympus mikroskopio batentzat, LED argiztapen sistema bat Cool Le pE300 fluoreszentzia mikroskopio batentzat, Zeiss Asiocam 305C kolorezko kamera digital bat eta LED Colibrí 5 sistema, eta ekipo informatiko bat.

Horrez gain, ekipamendu txiki hau erosi da: hozkailu baxu bat, aulki bat eta laborategiko bi aulki Arabako animaliategirako; konbi bat eta etenik gabeko elikadura sistema bat DNA bankurako; mahai mikroskopio at Polimeroen Mikroskopia zerbitzurako; amoladore bat Geokronologia eta Geokimika Isotopikoaren Zerbitzurako; lau minizentrifugagailu, vacusip bat, eta Hybex de Scigene berogailu/inkubagailuarentzako osagarriak Genomika Zerbitzurako; hodiak berotzeko termobloke lehor bat Proteomika Zerbitzurako; balantza bat eta berogailu bat Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralerako, eta, azkenik, bi kimatizazio equipo ordezkatu dira: bat Gipuzkoako Erresonantzia Magnetiko Nuklearreko Zerbitzuarena, eta bestea Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentraleko masen espektrometriako laborategiarena.

2018. urtean ekipamendua erosteko finantzaketari dagokionez, ondorengo koadro-laburpenean jasotzen da nondik datozen erabili diren funtsak (2. taula).

| Unitatea /Zerbitzua                                          | Ekipamendua                                                                                | Programa kontratua | Funts propioak     | Total                |
|--------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|--------------------|----------------------|
| Arabako Analisisien Zerbitzu Zentrala                        | Masen analizatzaile, kuadropolo hirukoitzarekin                                            |                    | 245.000,00€        | 245.000,00€          |
|                                                              | Likidoen komatografoa                                                                      | 21.454,45€         |                    | 21.454,45€           |
|                                                              | 2 Ekipamendu informatikoak                                                                 | 1.669,00€          |                    | 1.669,00€            |
| Mikroskopia: Polimeroen Analisia                             | Mahaigaineko mikroskopia                                                                   | 14.551,64€         |                    | 14.551,64€           |
| X Izpiak: Molekulak eta Materialak                           | Erreflektometria eta SAXS konfigurazioko lagin polikristalinoko difraktometroa             | 180.000,00€        |                    | 180.000,00€          |
|                                                              | Bruker D8 difraktometroa eguneratzea                                                       |                    | 46.996,22€         | 46.996,22€           |
|                                                              | Ekipo informatikoa                                                                         | 850,00€            |                    | 850,00€              |
| Genomika Zerbitzua                                           | NGS sekuentziazio plataforma                                                               | 289.178,93 €       |                    | 289.178,93 €         |
|                                                              | Etenik gabeko elikadura sistema                                                            | 1.215,00€          |                    | 1.215,00€            |
|                                                              | 3 ekipa informatiko sekentziazio plataformako datuen tratamendurako                        | 20.841,00€         |                    | 20.841,00€           |
| Bizkaiko Animaliatagia (Rita Levi eraikina)                  | Mikroskopia kamerarekin                                                                    | 9.573,87€          |                    | 9.573,87€            |
|                                                              | Balantza                                                                                   | 579,97€            |                    | 579,97€              |
|                                                              | Fluido xurgagailu eramangarria                                                             | 743,15€            |                    | 743,15€              |
|                                                              | Isoflorano anestesiararen ekipoa                                                           | 4.710,00€          |                    | 4.710,00€            |
|                                                              | Trepanagailua                                                                              | 893,00€            |                    | 893,00€              |
|                                                              | Estereotaxikoa U formako oinarriarekin                                                     | 3.596,35€          |                    | 3.596,35€            |
|                                                              | Tresna kirurgikoen kita                                                                    | 800,00€            |                    | 800,00€              |
|                                                              | Mikroinjektorea                                                                            | 2.895,90€          |                    | 2.895,90€            |
|                                                              | Tapaki bero-emailea                                                                        | 1.847,50€          |                    | 1.847,50€            |
|                                                              | Bolen esterilizagailua                                                                     | 524,00€            |                    | 524,00€              |
|                                                              | No frost hozkailu konbia                                                                   | 577,50€            |                    | 577,50€              |
| Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala                     | Induktiboki akoplatuta dagoen plasmazko ekipoa, masen espektrometriaren detektagailuarekin |                    | 114.700,00€        | 114.700,00€          |
|                                                              | Analizatzaile Elemental Organikoa                                                          | 38.500,00€         |                    | 38.500,00€           |
|                                                              | Mikrouhin labearentzako lagin digestorea                                                   | 12.995,00€         |                    | 12.995,00€           |
|                                                              | "Martina Casiano" Teknologia Plataformako 1B9ko instalazio elektrikoa egokitzea            | 2.928,18€          |                    | 2.928,18€            |
| Proteomika Zerbitzua                                         | Hutseko kontzentratzaile zentrifugoa                                                       | 19.213,00€         | 19.389,00€         | 38.602,00€           |
| Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan | Zelulen hazkuntzarako inkubagailua                                                         | 3.340,00€          |                    | 3.340,00€            |
|                                                              | Eskuzko platina eta kamararen egokigailua Olympus mikroskopiorako                          | 1.452,00€          |                    | 1.452,00€            |
|                                                              | LED argitapen zerbitzua, fluoreszentzia mikroskopiorako                                    | 3.590,43€          |                    | 3.590,43€            |
|                                                              | Zeiss Asiocam kolorezko kamera digitala eta LED Colibrí 5 sistema                          | 6.813,00€          |                    | 6.813,00€            |
|                                                              | Ekipo informatikoa                                                                         |                    | 983,00€            | 983,00€              |
| Guztiekin erabiltzeko ekipamendua                            | Ekipamendu txikia                                                                          | 10.666,78€         | 6.988,48€          | 17.655,26€           |
| <b>GUZTIRA</b>                                               |                                                                                            | <b>655.999,65€</b> | <b>434.056,70€</b> | <b>1.090.056,35€</b> |

2. taula. Finantzaketaren jatorria eta inbertsioa.

Denera, SGlkerrek 2018. Urtean ekipamenduan egin duten inbertsioak milioi bat euro gainditu ditu. Ekipamendu handia izan da eginiko inbertsioen protagonista (% 90,72). Zerbitzu orokor bat izanik, normala da, izan ere, zerbitzuaren helburu nagusia da komunitate zientifiko eta teknologikoaren eskaerei erantzuna ematea, ikerketa arlo guztietan (3. taula).

| Inbertsio osoa 2018 | Ekipamendu handia | Ekipamendu txikia |
|---------------------|-------------------|-------------------|
| 1.090.056,35€       | 988.983,24€       | 101.073,11€       |

3. taula. Inbertsioaren banaketa, ekipamendu motaren arabera.

2018. urtean, UPV/EHUko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek (SGlker) honako deialdi hauetan parte hartu dute: ekipamendu zientifiko tekniko horren zati bat erosteko laguntzak emateko deialdia, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasuna Ministerioaren ikerketa azpiegituren eta ekipamendu zientifiko-teknikoaren estatuko azpiprogramari (I+G+b Estatu Plana, 2017-2020) dagokiona (FEDER Laguntzak), eta UPV/EHUko azpiegitura zientifikoa eta funts bibliografikoak finantzatzeko, erosteko eta berritzeko laguntzen deialdia. Aldeko ebaluazioa lortu dute FEDERen lau eskaeratan eta UPV/EHUko azpiegituraren 2018ko deialdiari dagozkion eskaera guztietan (bi).

SGlkerren eskaerek bi deialdietan izandako arrakasta dela eta, ekipamendu handia erosi eta berritu ahal izan da % 50eko finantzaketarekin. Hala ere, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek (SGlker) goi prestazioko ekipamenduaren finantzaketa lortzeko, programa kontratutik datozen funtsak eta funts propioak erabili ditu; izan ere, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasuna Ministerioaren deialditik lortutako finantzaketa 2019. urtean zehar gauzatuko da, eta deialdian bertan epe hori ezartzen da eskatutako ekipamendua erosteko eta instalatzeko.

Jarraian daude zehaztuta zein ekipo erosi diren deialdi bakoitzaren bitartez.

### ***Ekonomia, Industria eta Lehiakortasuna Ministerioaren FEDER 2018 deialdia***

Eskaerak bat datoz Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planarekin (ZTBP 2020), zeinak 3 lehentasun definitzen baititu espezializazio adimendunean: (1) Fabrikazio aurreratua, (2) Energia eta (3) Biozientziak. Hona emen ekipoak eta beren balorazio ekonomikoa (BEZa ez dago sartuta).

- ✓ Laser bidezko Ablazio Sistema, Geokronologia eta Geokimika Isotopikoaren Zerbitzurako: Zerbitzuak 2004an erositako ekipo bat ordezkatzeko du (Fabrikazio aurreratua). Lizitazioaren balioa: 198.000,00€.
- ✓ Transmisio Mikroskopio Elektronikoa (TEM), Polimeroen Analisiaren Zerbitzurako. Horrekin zerbitzuan dagoen TEM berrituko da, 2007an erosi baitzen (arlo guztiak zeharkatzen ditu). Lizitazioaren balioa: 826.000,00€.
- ✓ ARINA ingurunea zabaltzea, ikerketari aplikatutako Informatika Zerbitzurako. Kalkulu gaitasuna sustatzen da Kalkulu Zientifikoaren Klusterrera (arlo guztiak zeharkatzen ditu). Lizitazioaren balioa: 375.000,00€.
- ✓ Saguak patogenorik gabeko baldintza espezifikoetan (SPF) estabulatzeko ekipamendua, "Rita Levi" animaliategirako. Honako hau da ekipamendua: aireztatze unitateak (motorrak), banaka aireztatutako kaiolek edo isolatzaile txikiekin aireztatutako rack-ak, eta dagozkien biberioak, animaliak aldatzeko lamina fluxudun kabinak, eta txiribil garbiko geruzaren euskarri bat, kaiola aireztatuak betetzeko (Biozientziak). Lizitazioaren balioa: 800.000,00€.

## **UPV/EHUko azpiegitura zientifikoa eta funts bibliografikoa finantzatzeko, erosteko eta berritzeko laguntzen 2018ko deialdia**

- ✓ Analizatzaile Elemental Organikoa (AE0), CHNSOren neurria ahalbidetzen duena lagin solido, erdisolido eta likidoetan, Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentralerako. Balioa: 38.500,00€.
- ✓ Hutseko Kontzentratzaile Zentrifugoa (SPEED-VAC). Oso erabilgarria da laginak prestatzeko prozesuetan. "María Goyri" Animalia Bioteknologiarako Zentroan dauden SGiker zerbitzu guztiek eta eskatzen duten ikertzaile eta teknologo guztiek erabiltzeko da. Balioa: 38.602,00€.

### L1.3. Langileei arlo/teknika/metodologia esanguratsuen inguruko prestakuntza ematea

201. urtean 20 prestakuntza ikastaro eskaini eta gauzatu dira, eta guztira 171 pertsonak (102 emakumek eta 69 gizonek) parte hartu dute.

SGIkerren 16 unitatek giza laguntza eta laguntza teknikoa eman dute: guztira 43 prestakuntza eta ikerketa ekintza egin dira, UPV/EHUko 15 masterretan. Master horien artean, berezko titulu bat, unibertsitate arteko 4 master nazional eta unibertsitate arteko nazioarteko master bat daude.

2019. urtean 23 ikastaro berri eskaini dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira X-lzpien Difrakzioko kurtso berri bat (Hard/Soft Materials), hala nola, Ikerkuntzarako Hasteko Tailerrak Doktorego Eskolentzat.

Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentraleko langileek Maria del Carmen Costas Cousoren tesia zuzendu dute. Hau da tesiaren izenburua: "Viabilidad de un laboratorio de microsíntesis y caracterización de TATP (explosivo casero) para la creación de cebos en el adiestramiento de perros policía". Epaimahaiak oso balorazio positiboa egin dio tesi horri: bikain kalifikazioa lortu du (9.5). Horrez gain, lan hori baliagarria izan da Ertzaintzaren Txakur Unitatearen eskaerari erantzuteko, arazoak baitituzte etxeetako lehergaien kasuan txakur poliziak hezteko.

### L1.4. Diziplina askoko zerbitzuak ematea eta teknika analitikoak txertatzea

Guztira UPV/EHUko 246 ikertzaile nagusi (157 gizon eta 89 emakume) artatu dira, eta 220 enpresa eta norbanako (kanpoko agenteak).

Barneko 2093 eta kanpoko 862 zerbitzu eman dira (Guztira 2955 zerbitzu izan dira).

UPV/EHU-tik kanpoko entitateei egindako zerbitzu guztietatik, heren bat gutxi gora behera %47,6 (380 zerbitzu), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten 36 entitateri egin zaizkio zuzenean. konkretuki, 2018 urtean, SGIker-ek hurrengo agenteei laguntza prestatu die:

1. Achucarro, Basque Center for Neuroscience Fundazioa
2. Arcelormittal Innovacion Investigación e Inversión
3. Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biociencias, CIC bioGUNE
4. Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biomateriales, CIC biomaGUNE
5. Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Nanociencias, CIC nanoGUNE
6. Asociación de Investigación MPC-Materials Physics Center
7. BC3 Basque Centre for Climate Change - Klima Aldaketa Ikergai
8. BCAM - Basque Centre for Applied Mathematics
9. BCMaterials-Basque Center for Materials, Application and Nanostructures
10. Biopraxis Research AIE
11. BTI Biotechnology Institute I+D
12. Centro de Estudios e Investigaciones Técnicas (CEIT)
13. Centro de Investigación Cooperativa de Energías Alternativas, CIC energiGUNE
14. Donostia International Physic Center
15. Euskampus Fundazioa
16. Fundación Azti
17. Fundacion Biofisika Bizkaia/Biofisika Bizkaia Fundazioa
18. Fundación Cidetec
19. Fundación Euskoiker
20. Fundación Gaiker
21. Fundacion Ikerbasque - Ikerbasque Fundazioa
22. Fundación Inatec
23. Fundación Matia
24. Fundación Tecnia Research & Innovation
25. Fundación Vasca de Innovación e Investigaciones Sanitarias (BIOEF)
26. IK4 Azterlan
27. IK4 Lortek
28. IK4 Tekniker
29. Instituto de Investigacion Sanitaria Biocruces Bizkaia
30. Instituto de Investigación Sanitaria Biodonostia
31. Maier S. Coop
32. Neiker Tecnalia
33. Ormazabal Corporate Technology AIE
34. Polymat-Basque Center for Macromolecular Design and Engineering
35. Sidenor Investigacion y Desarrollo
36. Tecnalia Corporación Tecnológica

4. Taula: 2018ko RVCTI Agenteak babestuenak.

Gainera, SGikerrek laguntza eman diete atzerriko 8 erakunderi (horietatik 2 unibertsitateak dira). Horietatik guztietatik, Europar Batasunaz kanpoko herrialdeen esparruan, Suitzako, Erusiako eta Ekuadorreko hiru erakundeiei eman zaizkio zerbitzu (horietatik bat, Ekuadorrekoa, unibertsitatea da).

353 ikerketa proiektu babestu dira: 12 Europakoak dira, 106 nazionalak, 192 herrialdekoak eta 43 finantzazio pribatukoak.

Kontratu eta lankidetzak hitzarmenak sinatzea agente fidelizatuekin:

- ✓ Lankidetzak Ertzaintzako polizia zientifikoarekin, aholku gaietarako, analisiak egiteko eta prestakuntzarako.
- ✓ Lankidetzak Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin, lege kanpoko substantzia adiktiboaren laginei buruzko azterlan eta txostenetarako.

- ✓ Hitzarmena Salamancako Centro de Láseres Pulsados Ultracortos zentroarekin (CERN, Zuitza), Laser laborategia jarraitutasunez erabiltzeko.
- ✓ Sarbide mugatuko 4 kontratu sinatzea eta berritzea, SGikerren azpiegiturak erabiltzeko, ingurugiro sozio-ekonomikoko beste 4 erakunderekin.

Horrez gain, beste 10 hitzarmen orokor daude kanpoko erakundeen eta UPV/EHUren artean, eta hor zuzenean inplikaturik daude Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak (SGIker), erakunde horien eskura jartzen dituztelako langileak eta azpiegiturak baldintza onuragarrietan.

#### L1.5. Ezagutza berritzailearen sistematizazioa eta kudeaketa

Unibertsitateaz kanpoko 30 pertsonak (15 emakume eta 15 gizon) parte hartu dute SGikerrek eskainitako 10 prestakuntza ikastarotan. Haien artean, bat atzerrikoa da eta CERN-etik (Zuitza) etorri da.

UPV/EHUko 36 ikasleak (24 emakume eta 12 gizon) parte hartu dute SGikerrek eskainitako 11 prestakuntza ikastarotan.

Trebatzen ari diren 56 ikertzaileak (35 emakume eta 21 gizon) parte hartu dute eskainitako 16 ikastarotan.

## OE.2.- Hainbat kalitate estandar ezartzea

---

### L2.1. ISO 9001 ziurtagiria duten unitate gehiago

---

Bestalde, honako unitate hauen kalitate ziurtagiriaren berrebaluazio positiboa egin da, ISO 9001 arauari jarraikiz:

- Arabako Analisisien zerbitzu nagusia
- Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala
- Bizkaiko EMN unitatea
- Gipuzkoako EMN unitatea
- Polimeroak Karakterizatzeko Zerbitzua, Mikroskopia
- Raman-MAKLAB laborategi singularra
- X izpien zerbitzua: XPS unitatea
- X izpien zerbitzua: molekula eta materialak
- Arabako animaliategia
- Bizkaiko animaliategia
- SGIkerren prestakuntza etengabeko ikastaroak

Horrez gain, 2018an, 2 zerbitzu berri jarri dira ziurtagirian:

- Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia Zerbitzua.
- Fitotroia eta Berotegia Zerbitzua.

Beste unitate batzuetan txertatzeko prozesuari jarraipena emateko, ADN Bankua ziurtagiriaren irismenaren barruan kokatzeko lanak hasi dira.

### L2.2. ISO 17025 ziurtagiria duten saiakuntza gehiago

---

ISO 17025 arauaren araberako analisi tekniken akreditazioaren berrebaluazio positiboa SGIkerren Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala. Horrez gain, 2018an, ICP-AES ekipo berria sartu da ziurtagirian.

Gainera, Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Zerbitzuan, ahaidetasun biologikoa analizatzeko teknika akreditazioaren berrebaluazio positiboa egin da.

Azkenik, oraindik ere ISO 17025 arauaren peko teknika eta ekipo berriak integratzeko jarduerak egiten dira; esate baterako, TOC teknikarekin ur laginen guztizko karbono organikoa analizatzeko ekipoa.

### L2.3. Zerbitzuen Gutuna egitea

---

2018an, SGIkerren Zerbitzuen Karta berri bat ziurtatu da, X-Izpien Zerbitzuan, XPSen txertatua. Q-epea taldeko auditoreek egin dute ebaluazioa, eta, aldeko txostena idatzi ondoren, erakunde horrek berak ziurtagiria eman du.



2018. urtean onartu du UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiak Mikroskopia Zerbitzua: Polimeroen Analisia unitatearen zerbitzu karta.

Jarduera horietan aurrera egiten jarraitzeko, beste zerbitzu bat karta onartu da: Fitotroia eta Berotegia.

Azkenik, 2018. urtetik SGikerren Berrikuntza eta Kalitate Unitateko langileak Q-epea zerbitzuen karten ebaluatzaile taldeko kide dira, baldintza hori bete behar baita ebaluazio eta egiaztagiri horiek izateko.

#### L2.4. Unitate guztien administrazio kudeaketa errazteko eta estandarizatzeko "Enterprise Resource Planning" (ERP) bat garatzea

---

Bukatu da plataformako erabiltzaileen, teknikarien eta administrarien moduluen garapena. Orain, lehen probak egiten ari dira unitate pilotuetan tresna martxan jarri aurretik (XPSen, X-lzpien Zerbitzuan). Proba hauek tresnaren behin betiko bertsioa ateratzeko balio dute.

Aldi berean, UPV/EHU kanpoko erakunde eta pertsonentzat tresna hori bera garatzeko lanak hasi dira, jasotako eskaera guztien kudeaketa egin ahal izateko.

## OE.3.- Lankidetza sareak ugaritzea

---

L3.1. Beste ikastegi batzuetako egonaldien edo harreraren bidez prestakuntza espezifikoko jarduerak indartzea

---

### **Teknikariak**

Gene Adierazpen Unitateko Irantzu Bernales doktoreak egonaldi bat egin zuen Heidelbergeko (Alemania) European Molecular Biology Laboratory (EMBL) laborategian, 2018ko martxoaren 20tik 23ra, Illuminaren equipamenduen bitartez RNA-seq-en liburutegiak prestatzeko, laginen kopuru gutxiekin protokolo berri baten bidez trebakuntza jasotzeko.

Beatriz Puente Berdasco Oviedoko Unibertsitateko Zerbitzu Zientifiko-Teknikoetako teknikariak egonaldia egin du, bereizmen altuko masa espektrometriaren eta plasma iturridun multikolekzioaren bidez (MC-ICP-MS) isotopoak nalizatzeko tekniken inguruko formazioa jasotzeko. Egonaldia 2018ko urriaren 15etik 19ra bitartekoa izan da.

### **Gizarteari begirako jarduerak**

Goi mailako prestakuntza modulueta 7 ikasle hartu ziren euren formakuntza osatzeko praktikak lan zentroetan egiteko (3 hilabeteko egonaldia). Ikasle horien erreferentziako zentroak, dagozkion hitzarmenak izenpetu dituztenak, Bilboko Elorrieta Erreka Mari LHII eta Santurtziko San José de Calasanz LHII dira. Egonaldiak 2018ko martxotik maiatzera bitartean egin ziren.

DBHko ikasle gazteen artean zientziarako zaletasuna sortzeko jardueren baitan, UPV/EHUko SGIker – Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako Zientziometria unitateak "Nola bilatu kalitatezko informazioa?" lantegia eman zien La Salle ikastetxeko DBHko 4. mailako 37 ikasleri UPV/EHUren Bilboko Ingeniaritza Eskolan, 2018ko otsailaren 2an, ostiralean.

Leioako Artaza-Pinueta ikastetxeko 7 urteko hamar umek (6 mutil eta 4 neska) parte hartu zuten joan den abenduaren 11n Zientzia eta Teknologia Fakultatean (Bizkaiko Campusa), Leioako Udaleko Udalezkuntza Sailarekin lankidetzan, antolatutako hiru lantegietan. Lantegi horiek 2018-19 ikasturtean ezarritako Eskola SGIker Programaren baitan egin ziren, eta helburu zuten jarduera zientifikoa haurrei hurbiltzea eta, era horretara, jarduera zientifikoarekiko interesa sortzea. Lantegiok Erresonantzia Magnetiko-Nuklearra, X izpiak: molekulak eta materialak, Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala eta Fitotroi eta Berotegi zerbitzueta egin ziren.

## OE.4.- Zientzia komunikaziorako kanalak hobetzea. SGlker marka indartzea

---

### L4.1. Biltzarretan parte hartzea zientzia ekarpenak eginez, eta barneko zein kanpoko ikertzaileentzako workshopak antolatzea

---

Ikerketari Laguntzeko Zerbitzu Orokorren IV. Jardunaldia: SGlker zerbitzuetako teknikariek Zaragozako Unibertsitateak antolatuta eta “Kalitatea, aurrera egiteko bidea” izenburupean egin zen Ikerketari Laguntzeko Zerbitzu Orokorren (SAI) IV. Jardunaldian parte hartu zuten. SGlker zerbitzuetako koordinatzaile Iñaki Echeverriak “SGlker zerbitzuen estrategia, adierazlerik garrantzitsuenak” hitzaldia eman zuen. Jardunaldia 2018ko martxoaren 1ean egin zen Zaragozan.

SGlker zerbitzuetako teknikari bat haurren Neumologiari buruzko Osakidetza-Meumotxiki Bilboko bileran parte hartzera gonbidatu zuten: Haurren Neumologiari buruzko Osakidetza-Meumotxiki bileran parte hartzeko gonbidapena jaso ondoren, teknikari batek parte hartu zuen bertan. Bilera Bilboko Medikuen Elkargoan egin zen 2018ko martxoaren 5ean, eta Ricardo Andrade doktoreak transmisioko mikroskopia elektronikoak gaixotasunaren diagnostikoan dituen aplikazioak, abantailak eta mugak aurkeztu zituen, Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuan aztertutako kasuen historialaren berri emateaz gainera.

SGlker zerbitzuen aurkezpena Zientzia eta Teknologia Fakultateko VI. Ikerkuntza Jardunaldietan: Zientzia eta Teknologia Fakultatean bi urtez behin egiten diren Ikerkuntza Jardunaldietan ikerketa jardueraren, ingurune sozioekonomikoaren eta enpresen arteko topaketak egiten dira. Topaketaz baliatuz, SGlker zerbitzuek euren jardura aurkeztu zuten 2018ko martxoaren 14an “Advanced research facilities of the UPV/EHU” komunikazioaren bitartez.

Applications of electron Microscopy: Knowledge and facilities in the Basque Country jardunaldiak: Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuko teknikaria den Ricardo Andrade 2018ko martxoaren 15ean egin ziren Applications of electron Microscopy: Knowledge and facilities in the Basque Country jardunaldietan parte hartzera gonbidatu zuten. Aurkeztutako lanaren titulua “101 Images from the daily life of a microscopy facility technician” izan zen.

Bilbon egindako Pint of Science Jaialdiko jardunaldien koordinazioa: Luís Bartolomé Moro doktoreak, Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentraleko teknikariak, koordinatu zituen 2018ko maiatzaren 14tik 16ra bitartean Bilbon, jardunaldien babesle ziren taberna eta lokaletan, Pint of Science Jaialdiaren baitan antolatutako ekitaldiak. Pint of Science jaialdiaren helburua da azken-azkeneko ikerketa zientifikoei buruzko hitzaldi interesgarri, dibertigarri eta garrantzitsuak ematea jende guztiairengana iristeko moduko formatuan.

SGlker zerbitzuek Ikerkuntzaren eta Goi mailako Hezkuntzaren Kalitatearen Ebaluazioari buruzko Nazioarteko XV. Foroan (FECIES) parte hartu zuten Santanderren: Yolanda Etxebarria Larraz eta Fátima Pastor Ruiz Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako (SGlker) Azpiegitura eta Zientziometria alorreko teknikariak FECIES XV. Foroan izan ziren. Foroa 2018ko maiatzaren 10etik 12ra bitartean egin zen Santanderreko Magdalena Jauregian, Granadako Unibertsitateak eta Psikologia Konduktualaren Espainiako Elkarteak antolatuta. Bertan, ikerkuntzaren ebaluazioaren alorreko organismo ofizialetako ordezkariak eta nazio mailako zein nazioarteko unibertsitateetako kideek parte hartu zuten. Foro honetan “Ikerkuntzarako aplikazio mugikor nagusiak” eta “The doctoral theses supported by the SGlker Platforms of the University of the Basque Country are aligned with the Horizon 2020 Programme” lanak aurkeztu zituzten.

8th Baikál International Conference "Magnetic materials, new technologies": Aitor Larrañaga Varga dotoreak, X Izpiak Zerbitzuko teknikariak, Errusiako Irkutsk hirian 2018ko abuztuaren 24tik 28ra bitartean egindako 8th Baikál International Conference "Magnetic materials, new technologies" biltzarrean parte hartu zuen, eta "X Ray Diffraction for Materials Research" lana aurkeztu zuen.

Dokumentoskopiako Perituen Elkartearen X. Biltzarrean parte-hartzea: Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentraleko teknikari Luís Bartolomé Moro doktorea urriaren 24tik 26ra bitartean egin zen Dokumentoskopiako Perituen Elkartearen X. Biltzarrean izan zen, eta "DANTINK metodoa eta bere aurrerapen batzuk" lana aurkeztu zuen bertan.

SGIker zerbitzuetako teknikari batek Mexikon EMNri (Erresonantzia Magnetiko Nuklearra) buruzko sinposio batean parte hartzeko gonbidapena jaso zuen: Iñaki Santos doktorea, Solidoen EMN Zerbitzuko teknikaria, 2018ko azaroaren 5etik 9ra bitartean Mexikon, Jalisco, Guadajarako Iztapalapako Unibertsitate Autonomo Metropolitanoan egin zen Kimikako Graduondoko Erresonantzia Magnetiko Nuklearraren IV. Sinposioan parte hartzera gonbidatu zuten. Teknikariak "Egoera solidoaren EMNak dituen aplikazioak polimorfoen azterketan produktu farmazeutikoetan" eta "EMN espektroskopiaren aplikazioak elikagaietan: Euskadiko sagarrak eta sagardoak" lanak aurkeztu zituen eta Solidoen EMNaren saio praktiko bat egin zuen.

#### L4.2. Unitateak indartzeko difusio planak garatzea

---

Kalkulu Zientifikoko Zerbitzuak XVII. Meeting of Information Technology Managers of de Basque Science, Technology and Innovation Network antolatu zuen: 2018ko otsailaren 23an egindako topaketa horretan Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko hainbat zentrotako ikertzaileek parte hartu zuten; zentroak hauek izan ziren: BCAM, CFM, CIC BiomaGUNE, CIC BioGUNE, BCBL - Basque Center on Cognition, Brain and Language, DIPC - Donostia International Physics Center, I2BASQUE, CIDETEC, Achucarro - Basque Center for Neuroscience, BCMaterials - Basque Center for Materials, Applications & Nanostructures eta UPV/EHUko SGIker – Ikerkuntzako Zerbitzu Orokorrak.

Lan Zentroetako Prestakuntzan (LZP) parte hartu duten ikasleen lanak aurkezteko jardunaldia: 2018ko maiatzaren 15ean egin zen Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako Lan Zentroetako Prestakuntzan parte hartu zuten ikasleek euren jarduerak eta lanak gainerako ikasleei, irakasleei eta tutoreei aurkezteko jardunaldia. Aurkezpenaren aurretik, goi mailako heziketa modulu etako ikasleek 3 hilabeteko egonaldiak egin zituzten euren prestakuntza osatzeko praktikak egiten. Erreferentziako zentroak Bilboko Elorrieta Erreka Mari LHII eta Santurtziko San José de Calasanz LHII izan ziren.

Argiaren Nazioarteko Eguna: Laser Tresna unitateak Argiaren Nazioarteko Eguna Ospatzen izeneko topaketa bat antolatu zuen 2018ko maiatzaren 16an Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Topaketaren baitan laser pultsu ultralaburrekin egiten den lana eta aplikazioak aurkeztu zituen eta unitatearen laborategira bisita gidatua antolatu zuen.

SGIker zerbitzuen Argazki zientifikoaren VIII. Lehiaketa: Eduardo Anitua eta Cristian Mendes izan ziren SGIker zerbitzuek antolatutako Argazki zientifikoaren VIII. lehiaketaren irabazleak. Sari banaketa 2018ko uztailaren 23an egin zen Bizkaiko Campuseko (Leioako gunea) Liburutegi Nagusiko Biltzar Aretoan. Ekitaldiaren buruan izan ziren UPV/EHUko Ikerketaren arloko

errektoreordea, José Luis Martín irakaslea, SGiker zerbitzuen zuzendaria, Maribel Arriortua irakaslea, eta Medikuntza eta Odontologia Fakultateko katedradun Juan Miguel Aréchaga irakaslea.

UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 Arauari buruzko ikastaroa, arauaren baldintza berriei buruzkoa: SGiker zerbitzuek ISO 17025 arauaren baldintza berriei buruzko ikastaro bat antolatu zuten, laborategietako saiakuntzen akreditazioarekin lotuta. Ikastaroa 2018ko abenduaren 10ean egin zen, bertan 13 pertsonak parte hartu zuten eta kalitate-arau horretan akreditatutako UPV/EHUko laborategietako lantaldearen jarduera-esparruaren baitan egin zen.

#### L4.3. SGikerrek zientzia ekoizpenean laguntzen duelako (ekarpenak, jabetza intelektualak...) berariazko aitortzea indartzea

---

2018an 387 zientzia artikulua argitaratu ziren SGIkerrak zuzenean aipatuta. 2004az geroztik 3.328 artikulua metatu dira.

SGikerrek ikerketa taldeei emandako laguntzaren kalitatea monitorizatu dute. Horren helburuetako bat da lehentasuna ematea azpiegitura eta langileei dagozkien beharrei. Emaizta da SGikerreko langileen eta teknologiaren bitartez eginiko argitalpenen % 70,4 aldizkariaren rankingeko Q1 kuartilean daudela eta % 21,9 Q2 kuartilean. Orotara, batez beste argitalpenen % 92tik gora Q1 + Q2 kuartiletan egotea lortu da. Dezilei dagokienez, argitalpenen %41 D1ean daude.

Doktorego tesien kopuruari dagokionez, 2018. urtean 100 tesi defendatu ziren SGikerretako azpiegituraren eta langileen laguntzarekin. Horietatik guztietatik 69 nazioartekoak izan ziren.

#### L4.4. Komunikabideetan agertzea

---

SGikerretan eginiko jarduerekin eta analisiekin lotutako 32 albiste argitaratu dira prentsa idatzian. Horrez gain, erreportaje bat eman da irratian, eta bi albiste eman dira telebistan. Gainera, Interneten argitaratutako hiru albiste ere jaso dira.

#### L4.5. Ekipamendu berria aurkezteko jardunaldiak

---

María Goyri Animalien Bioteknologiako Gunean erabilgarri dauden mikroskopia fokukide berriak aurkezteko jardunaldiak.

Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuak bi jardunaldi antolatu zituen 2018ko azaroaren 27an eta 28an Maria Goyri Animalien Bioteknologiako Guneako mikroskopia instalazio berriak eta gunean erabilgarri dauden mikroskopia fokukide berriak aurkezteko. Jardunaldietan UPV/EHUko eta ikerketaren arloko beste erakunde eta zentro batzuetako 59 ikertzailek parte hartu zuten guztira.

#### L4.6. Hain ustiatuta ez dauden zientzia arloetako eta gorabidean diren zientzia arloetako prestakuntza eskaintza eguneratzea

---

Ikerketa babesteko antolatu eta/edo eman diren tailerrak eta jardunaldiak:

- ✓ SGikerrek ikerkuntzan hasteko tailerren zenbait saio eman dituzte, hainbat prestakuntza jardueraren barruan:
  - Zientziometria saioa Kuaternarioa, Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza Masterrarrean. 2018ko urtarrilaren 22an egin zen, Zientzia eta Teknologia Fakultatean, eta 4 pertsonak parte hartu zuten (2 gizon eta 2 emakume).
  - Ikerketan hasteko tailerra, Doktorego Eskolak eskatutakoa. 2018ko martxoaren 6an eta 8an eman zen, Bilboko Ingeniaritza Eskolan, eta 24 pertsonak parte hartu zuten (9 gizon eta 15 emakume).
  - Zientziometria saioak IRAKER programaren barruan (2. Saioa), Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak SAE-HELAZ) eskatuta. 2018ko martxoaren 9an eta apirilaren 26an egin ziren, Leioako Biblioteka Nagusian dagoen HELAZen informatika gelan, eta 20 pertsonak parte hartu zuten (8 gizon eta 12 emakume).
  - Arte Ederretan akreditazioetarako eta seiurtekoetarako kalitate adierazleei buruzko saioa. 2018ko apirilaren 13an egin zen UPV/EHUko Ekonomia Fakultatean, Elcanon, eta 8 pertsonak parte hartu zuten (2 gizon eta 6 emakume).
  - Ikerkuntzan hasteko tailerra, Itsasketa Masterraren eta Nautika eta Itsas Garraioa Masterraren barruan. 2018ko urriaren 8an egin zen, Portugaleteko Itsas Eskolan, eta 13 pertsonak parte hartu zuten (3 emakume eta 10 gizon).
  - Informazio baliabideak eta estrategiak ekonomia eta enpresa arloko ikerketarako, UPV/EHUren Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Masterraren eta Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza Doktorego Programaren barruan. 2018ko urriaren 17an eta 24an egin zen, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean, eta 14 pertsonak hartu zuten parte (7 gizon eta 7 emakume).
  - Ikerkuntzan hasteko tailerra Analisi Forentsea Masterraren barruan. 2018ko azaroaren 8an egin zen, Zientzia eta Teknologia Fakultatean eta 20 pertsonak parte hartu zuten (3 gizon eta 17 emakume).
  - Lan zientifikoa egituratzeari buruzko saioa, Ingeniaritza Nautikoa, Itsas Ingeniaritza eta Itsasontzi Erradioelektronikako Ingeniaritza Doktorego Programaren barruan. 2018ko azaroaren 9an egin zen, Portugaleteko Itsas Eskolan, eta 8 pertsonak parte hartu zuten (4 gizon eta 4 emakume).

## OE.5. – SGlkerretako langileen gaitasunak areagotzea

---

### L5.1. Urteko prestakuntza plana mantentzea

---

SGlkerretako langileek guztira 36 prestakuntza jardueratan parte hartu dute 2018an; zehazki, 58 parte hartze izan dira prestakuntza ikastaroetan.

### L5.2. Teknikarien etengabeko prestakuntza

---

SGlkerretako langileek 821 trebakuntza ordu jaso dituzte guztira; hau da, SGlkerrei atxikitako pertsona bakoitzak 15,5 ordu egin ditu, lanaldiaren % 0,97.

### L5.3. Barne prestakuntzako prozesuak

---

SGlkerretako 4 teknikarik ikasle gisa parte hartu dute SGlkerrek antolatu eta emandako 3 prestakuntza jardueratan.


## 4. SGIker Kopurutan

Zehazturiko aginte taulan, hurrengo atalen bidez, informazio esanguratsua eta egindako inbertsioen eraginkortasunaren joera azaltzen da.

### 4.1. Ikertaldeak ta kanpoko erakundeak


#### UPV/EHUko ikertzaileak

UPV/EHUko ikertzaile nagusi (IN) gehiagok erabili dituzte SGIkerretako unitateek emandako zerbitzuak. 2. irudian ikus daitekeenez, 246 erabiltzaile izan dira guztira. Gizon ikertzaileetan gertatu da gorakada handiena (%1,36); emakumeen kopurua, berriz, %2,43 gutxitu da.



2. irudia. 2014-2018 arteko barne ikertzaile nagusien (IN) kopurua..

Bestalde, 2018. urteko ikertzaileen genero banaketa ere jaso da (3. irudia).



3. irudia. 2018ko erakundeko ikertzaileak, generoaren arabera.




## Kanpoko erakundeak eta partikularrak

UPV/EHUtik kanpo eskatu diren lanei dagokienez, 220 kanpoko erakundek eta partikularrek eskatutako 862 zerbitzu eman dituzte SGikerrek 2018an (5. taula). Lehen sailkapena dela eta, 151 enpresak dira; 789, emandako zerbitzuak; 69, partikularrak; eta 73, emandako zerbitzuak (4. irudia).


| PERTSONA FISIKOAK ETA ERAKUNDE<br>PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK | ERAKUNDEAK | ZERBITZUAK |
|-----------------------------------------------------------|------------|------------|
| <b>Erakunde pribatuak</b>                                 | 90         | 388        |
| <b>Erakunde publikoak</b>                                 | 61         | 401        |
| <b>Partikularak</b>                                       | 69         | 73         |
| <b>Totala</b>                                             | <b>220</b> | <b>862</b> |

5. taula. Erabiltzaileak eta prestatutako zerbitzuak.




4. irudia. Kanpoko eskatzaileek (enpresek eta partikularrek) 2014-2018 artean izandako bilakaera.

5. irudian, barne eta kanpo eskatzaileen kopuruaren arteko lotura erakusten da, eta 6.ak, berriz, SGikerretako arloek prestatutako erakundeen eta zerbitzuen arteko banaketa jasotzen du.



5. irudia. Barneko eta kanpoko eskatzaile kopuruaren arteko proportzioa.



6. irudia. SGIkerretako arloek prestatutako erakundeen/zerbitzuen banaketa.

Bestalde, 6. taulak kanpoko erakundeen jatorri geografikoa eta zerbitzuak eskatu dituzten unibertsitateen kopurua erakusten du.

| JATORRIAREN ARABERA                                   | ERAKUNDEAK / ZERBITZUAK | UNIBERTSITATEAK / ZERBITZUAK |
|-------------------------------------------------------|-------------------------|------------------------------|
| <b>EAEkoak</b>                                        | <b>76 (593)</b>         | <b>- (-)</b>                 |
| ZTBES                                                 | 36 (380)                | - (-)                        |
| <b>Espainiako gainerako autonomia erkidegoetakoak</b> | <b>67 (169)</b>         | <b>22 (56)</b>               |
| G9 Unibertsitateak                                    | 6 (24)                  | 6 (24)                       |
| <b>Munduko gainerako estatuak</b>                     | <b>8 (27)</b>           | <b>3 (3)</b>                 |
| Frantzia                                              | 2 (8)                   | 1 (1)                        |
| Errezuma Batua                                        | 1 (1)                   | 1 (1)                        |
| Ekuadorrea                                            | 1 (1)                   | 1 (1)                        |
| Italia                                                | 1 (14)                  | - (-)                        |
| Alemania                                              | 1 (1)                   | - (-)                        |
| Errusia                                               | 1 (1)                   | - (-)                        |
| Suitza                                                | 1 (1)                   | - (-)                        |
| <b>Totala</b>                                         | <b>151 (789)</b>        | <b>25 (59)</b>               |

6. taula. Kanpoko unibertsitateen jatorria (partikularrak alde batera utzita), unibertsitateak adierazita.


Azkenik, 7. taulan kanpoko erakundeen tipologia adierazten da. Aintzat hartu behar da erakunde batzuk sailkapen batean baino gehiagotan daudela.

| ERAKUNDE MOTAREN ARABERA                                           | ERAKUNDEAK<br>(ZERBITZUAK) |
|--------------------------------------------------------------------|----------------------------|
| Unibertsitateak                                                    | 25 (59)                    |
| Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen erakundeak | 36 (380)                   |
| Ikerketa zentro publikoak                                          | 3 (30)                     |
| Fundazioak                                                         | 41 (18)                    |
| Sozietate mugatuak                                                 | 34 (138)                   |
| Sozietate anonimoak                                                | 25 (91)                    |
| Administrazio publikoak                                            | 16 (87)                    |
| Kooperatibak                                                       | 6 (43)                     |
| Beste batzuk                                                       | 4 (6)                      |

7. taula: Kanpo erakunde erabiltzaileen tipologia.

## 4.2. Zerbitzuak

2018an, guztira 2955 zerbitzu egin dira. Haien artean, 2093 zerbitzu eman zaizkie UPV/EHUKo ikertzaileei, eta 862 zerbitzu kanpoko erakunde eta pertsoneri (fakturak igorrita). 7. irudian, zerbitzuok 2014. urtetik izandako bilakaera ikus daiteke.



7. irudia. Emandako zerbitzuen kopuruaren bilakaera.

2004-2018 artean, SGikerrek 29.000 zerbitzu baino gehiago eman dizkiete ikertzaileei guztira.

## 4.3. Zientzia adierazleak


SGIkerrek oinarritzko laguntza ematen diote Euskal Herriko erakunde akademiko nagusiaren kanpoan zein barruan egiten den ikerkuntzari. Horrela, zientzia argitalpenak, doktorego tesiak, ikerketa proiektuak, eta unitateetako teknikariek parte hartu duten biltzar, foro eta mintegiak adierazle garrantzitsuak dira SGIkerrek ekitaldi bakoitzean izan duten zeregina neurtzeko.

#### 4.3.1. SGIkerren aipamena duten zientzia argitalpenak

Nabarmendu behar da azken bost urteotan argitalpen gehiago atera direla SGIkerretako unitateen babesarekin; zehazki, 2015-2018 artean, 2012-2014 aldiarekin konparatuta, % 20 areagotu da zientzia ekoizpenaren bolumena. 2018an erregistraturiko 387 argitalpenen kalitateari dagokionez, azpimarratzekoa da nabarmen gora egin duela lehen eta bigarren kuartileko inpaktu handiko aldizkarietan argitaraturiko ekarpenen ehunekoak (8. taula, 8. irudia).

|             | Q1   | Q2   | Q1+Q2 | D1             |
|-------------|------|------|-------|----------------|
| <b>2013</b> | 68,0 | 25,7 | 93,7  | Datu ezezaguna |
| <b>2014</b> | 69,7 | 24,8 | 94,5  | Datu ezezaguna |
| <b>2015</b> | 73,4 | 23,1 | 96,5  | Datu ezezaguna |
| <b>2016</b> | 74,1 | 20,0 | 94,1  | Datu ezezaguna |
| <b>2017</b> | 68,4 | 22,1 | 90,5  | 42,0           |
| <b>2018</b> | 70,4 | 21,9 | 92,3  | 41,0           |

8. taula. Argitalpenen ehunekoa, kuartilen arabera.




8. irudia. SGIkerrek babesturiko eta Q1 eta Q2 inpaktuko aldizkarietan kaleraturiko argitalpenen ehunekoa.

Jarduketa lerro hau oso garrantzitsua da; izan ere, helburu du langileen, azpiegituren eta beste zientzia baliabide batzuen deialdi publikoetan lehiatzen jarraitzeko curriculum sortzea eta emaitza onak lortzea.

Bat etorri gure ekoizpen zientifikoko datu basetik ateratako informazioaren arabera (iturriak: Web of Science —WOS—, Thomson Reuters-ena; Scopus, Elsevier-ena; Google Scholar; eta zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikoak), SGIkerrek 3.328 eman dituzte egin dute 2004. urteaz geroztik.


Jarraian, 9. irudian, SGIkerrek azken zazpi urteotan lagunduriko zientzia argitalpenen kopurua azaltzen da.



9. irudia. SGIker zerbitzuen ekarpena izan duten argitalpenak 2010-2018 aldian.


\* 2018.urteari dagokion publikazio kopurua behin behinekoa da, data basetan, erregistro berriak, etengabe sartzen dira eta (2019ko maiatzaren eguneratua).

Zientzia ekoizpenari buruzko gure datu basetik ateratako informazioaren arabera, eta Researcher ID programaren azken eguneratzearen arabera, SGIkerrek, 2004-2018 artean, Journal Citation Reports (JCR) argitalpenean bildutako inpaktu faktorea duten aldizkarietako 3.328 argitalpenetan izan dute aitorpena. Horietatik guztietatik, gaur-gaurkoz, WOSek 1.825 artikuluren aipamen bibliometrikoaren informazioa ematen du. Artikulu horiek, bada, 38.804 aipu sortu dituzte: batez beste, 21,27 aipu artikulu bakoitzeko, eta 70ko h inpaktua. Adierazleok izugarri areagotu dira 2017an bildutako datuen aldean; urte hartako aipuak 31.510 izan ziren guztira, hau da, batez beste 27,3 aipu artikulu bakoitzeko eta 66ko h inpaktu faktorea(10. Irudia).



10. irudia. SGIkerren laguntzarekin egindako ekarpenen aipamenaren bilakaera, 2004-2018 aldian.

11. irudian agertzen da adierazten diren adierazle bibliometrikoen adibide bat. SGIkerren laguntzarekin egindako ekarpenen berri ematen da hor, arloen arabera banatuta.



11. irudia. SGIkerren laguntzarekin WOSen egindako ekoizpenaren banaketa, artikulua gehien dituzten arloan arabera.

SGIkerren laguntzarekin eginako ekoizpen zientifikoan jasotako kontzeptu gakoan analisia asdierazten da lerrokatuta dagoela Manufaktura Aurreratua, Energia eta Iraunkortasuna, eta Biozientziak eta Oasasuna ildoekin, eta horiek guztiak ildo estrategikoak dira Europako Horizonte 2020 Programan, 2030eko berrienean eta Euskadi 2020 Zientzia ,Teknologia eta Berrikuntza Planean.


Gainera, jarduketa honekin, kalitate emaitzen ikuspegi garden eta bateratu bat eskaintzen zaio komunitate zientifiko eta akademikoari. Eraitza horiek goi mailako langileek eta azpiegitura lehiakor batek osatutako zerbitzu batzuen laguntzarekin sortu dira.

#### 4.3.2. SGIkerren laguntzarekin sortutako argitalpen zientifiken aipamenak patenteetan

Eragin handiko aldizkarietan artikuluak arigtaratzea eta patenteak dira ikerketa jardura eta ezagutzaren transferentzia neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusietako bi. Hala ere, bi adierazleak elementu independentetzat hartu ohi dira nabarmena denean lotura handia dagoela goi mailako erakunde akademikoan garatutako ikerketaren eta patenteen artean, berrikuntza babesteko bitarteko nagusi modura.

Ikuspegi horrekin, SGIkerren laguntzarekin sortutako argitalpenak aipatzen dituzten patenteen analisi bat sartu dugu. Australiako Cambia eta Queensland unibertsitateek egindako Lens ([www.lens.org](http://www.lens.org)) datu basearen PatCite tresna erabiliz, oraingoz 243 patente lortu ditugu. Patente horiek bat datos 182 familiarekin, eta UPV/EHUko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako hainbat unitatetan egindako lanen 113 erreferentzia bibliografiko dituzte.

Urtero egiten den analisi batek ohartarazi du gero eta patente gehiagok aipatzen dituztela argitalpenak, 12. irudian adierazten den bezala:




12. irudia. SGIkerren laguntzarekin egindako argitalpenak aipatzen dituzten patente kopuruaren aldi bateko bilakaera.

Patente horietan, UPV/EHU da gehienen jabea, bakarka edo beste erakunde fisiko edo juridiko batzuekin. Nolanahi ere, enpresa pribatuak eta estatuko eta atzerriko ikerketa erakunde eta unibertsitateak ere badaude; besteak beste: Belgikako Janssen Pharmaceutica konpainia farmazeutikoa, zeina Estatu Batuetako Johnson & Johnson korporazioaren filiala baita, eta Academia Sínica erakundea, zeina Txinako Errepublikako Akademia Nazionalea baita. Adierazitako 243 patenteetatik haienak dira 15 eta 11, hurrenez hurren.

Nabarmentzekoa da, halaber, SGikerren artikulua aipatzen dituzten patenteen % 42 emandako patenteak direla.

Gaiari dagokionez, Kimikarekin eta Metalurgiarekin lotuta daude funtsean, eta egero Medikuntzari eta Albaitaritzari lotutako giza beharrekin. 13. irudian, gaien arabera egindako analisi bat ikus daiteke.



13. irudia. Patenteetan aipatutako argitalpenen gaiak (2007-2018).

Hau da patenteen artean aipamen gehien dituen artikulua: “P2X7 receptor blockade prevents ATP excitotoxicity in neurons and reduces brain damage after ischemia”. Arbeloa, J., Pérez-Samartín, A. L., Gottlieb, M., & Matute, C. ikertzaileek egindakoa da, eta *Neurobiology of Disease*, 45(3), 954–961 aldizkarian argitaratu zen 2012. urtean.

Horrela, aztertu da gero eta estuagoa dela literatura zientifikoaren eta berau aipatzen duten patenteen arteko harreman, eta horrek agerian uzten du garrantzitsua dela UPV/EHUn SGikerren laguntzarekin egiten den ikerketa, I+G+B ekoizpen sareari transferitu ahal izateko.


Azkenik, azpimarratzekoa da SGikerren Laser Laborategiak 201830207 erregistro zenbakia duen patente espainiar bat eskatu duela: “*Dispositivo y método para la caracterización de pulsos ultracortos*”. Unitatean bertan garatutako teknika batean oinarrituta dago, eta UPV/EHUK %80ko ekarpena egiten du bertan.



### 4.3.3. SGlkerrek lagundutako doktorego tesiak


Ekipoak eta teknikariak finantzatzeko deialdi publikoetan eskaturiko adierazleak eta kalitate irizpideak ezarri ditugunez, kontu handiz egin dugu SGlkerretako zerbitzu eta unitateen baliabideak erabili dituzten eta UPV/EHUn egin diren doktorego tesien gaineko jarraipena.

Horren emaitza gisa, 2018an egindako 100 doktorego tesi defendatu dira EHUen; Lisboaren Unibertsitatean defendatu dena ez ezik (14. irudia).



14. irudia. Azken 5 urteotan lagundutako doktorego tesien banaketa eta joera.

Kopuru hori iazkoa (2017) baino pixka bat txikiagoa da, baina ikus daiteke SGlkerrek lagunduta egin diren tesien ehunekoa handiagoa dela UPV/EHUko doktorego tesi guztiak kontuan hartuta; izan ere, 2017an UPV/EHUko doktorego tesi guztien % 16,8 ziren eta 2018an % 29,9 (15. irudia).




15. irudia. SGlkerrek lagunduta egin diren doktorego tesien ehunekoa, UPV/EHUn defendatuako testi guztiak kontuan hartuta.

Gainera, 2018an, SGikerretan egindako doktorego tesien % 69 nazioartekoak izan dira; UPV/EHUn defendaturiko tesi guztietatik, berriz, % 47,6 izan dira nazioartekoak.

Zientzia esparruei erreparatuta (16. irudia), ikusi da 2018an egindako tesi gehienak Zientzia Esperimentalen arlokoak direla (% 57); ondoren, Ingeniaritza eta Arkitekturaren arlokoak (% 30), Osasunaren Zientzien arlokoak (% 12) eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak (% 1).

2017an irakurritako eta SGikerrek lagundutako 100 tesietatik, emakumeek 63 defendatu dituzte, eta gizonek, berriz, 37. Zientzia arloaren arabera banaketa 16. irudian ageri da.



16. irudia. SGikerrek lagundutako doktorego tesien banaketa, ezagutza arloen eta generoaren arabera.

Horrez gain, garrantzitsua da nabarmentzea SGikerrek lagundutako doktorego tesietatik 25 UPV/EHUko ikertzaileek UPV/EHUtik kanpoko ikertzaileekin elkarlanean zuzendu dituztela, eta bat kanpoko ikertzaileek solik (Lisboako Unibertsitateko bi ikertzailek zuzendutako tesia).

Elkarlanean defendatutako tesietako 12tan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 10 eragilek parte hartu dute. Horietako 5 Oinarrizko Ierketa eta Bikaintasun Zentroak idra, 2 Ierkuntza Kooperatiboko Zentroak, 2 Teknologia Zentro Multifokalizatuak eta bat Osasun Ikerketako Institutua da.

#### 4.3.4. Ikerketa proiektuak

2018. urtean, SGlkerrekin lan egin duten 246 ikertzaile nagusiek 353 ikerketa proiektu zuzendu dituzte guztira, eta horietatik 310 finantzazio publikoko eskualdeko, nazioko eta nazioarteko proiektu gisa sailkatu dira (9. taula). Gainerako 43 proiektuak finantzazio pribatukoak dira: 35 enprekin eginiko kontratuak dira, 4 erakunde pribatuen deialdiak eta 4 hitzarmenak (10. taula).

| IKERKETA PROIEKTUAK<br>FINANTZIAZIO PUBLIKOA | 2014       | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       |
|----------------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| <b>Nazioartekoak</b>                         | 11         | 10         | 15         | 17         | <b>12</b>  |
| <b>Nazionalak</b>                            | 97         | 100        | 112        | 108        | <b>106</b> |
| <b>Eskualdekoak</b>                          | 266        | 210        | 159        | 190        | <b>192</b> |
| <b>Guztira</b>                               | <b>374</b> | <b>320</b> | <b>286</b> | <b>315</b> | <b>310</b> |

9. taula. SGlker zerbitzuen laguntzarekin egindako finantzazio publikoko ikerketa proiektuak.

| IKERKETA PROIEKTUAK<br>FINANTZIAZIO PRIBATUA | 2014      | 2015      | 2016      | 2017      | 2018      |
|----------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| <b>Enprekin egindako kontratuak</b>          | 27        | 30        | 38        | <b>30</b> | <b>35</b> |
| <b>Erakunde pribatuen deialdiak</b>          | 4         | 0         | 2         | <b>2</b>  | <b>4</b>  |
| <b>Hitzarmenak</b>                           | 2         | 3         | 3         | <b>1</b>  | <b>4</b>  |
| <b>Guztira</b>                               | <b>33</b> | <b>33</b> | <b>43</b> | <b>33</b> | <b>43</b> |

10 taula. Finantzazio pribatua jaso duten proiektuak.

Zerbitzu eta unitate bakoitzak lagundutako eta UPV/EHUri emandako ikerketa proiektuen kopurua 735 da guztira; hots, hainbat alditan proiektu berbera babestu dute zenbait zerbitzuek. Horrenbestez, argi geratzen da lotura dagoela unitateen eta euskarri ematen zaien proiektuen diziplina askotarikotasunaren artean.

#### 4.3.5. SGlkerrek biltzar, foro eta mintegietan izan duten presentzia

2018. ekitaldian, aholkulari zientifikoek eta teknikariek partaidetza aktiboa izan dute: guztira, ekarpen zientifikoak egin dituzte 10 biltzar, jardunaldi, mintegi eta workshopetan.

Ondoren, kronologikoki zerrendatzen dira 10 parte hartzeak:


- ✓ (1) "Estrategia de los SGlker, indicadores más relevantes". **IV Jornada del Servicio General de apoyo a la Investigación (SAI) – Calidad, una vía para avanzar**. Zaragozan, 2018ko martxoaren 1ean.
- ✓ (2) "Aplicaciones de la microscopía electrónica de transmisión en el diagnóstico de la enfermedad: ventajas y limitaciones. El historial de casos analizados en el Servicio de Microscopía Analítica y de Alta Resolución en Biomedicina". **Reunión sobre Neumología Infantil, Osakidetza-Meumotxiki**. Bilbon, 2018ko martxoaren 5ean.

- ✓ (3) "Advanced research facilities of the UPV/EHU". *Jornadas de Investigación de la Facultad de Ciencia y Tecnología*. Leioan, 2018ko martxoaren 14an.
- ✓ (4) "101 Images from the daily life of a microscopy facility technician". *Applications of electron Microscopy: Knowledge and facilities in the Basque Country*. Donostian, 2018ko martxoaren 15ean.
- ✓ (5) "Principales Aplicaciones Móviles para la Investigación". *XV Foro Internacional sobre la evaluación de la calidad de la investigación y de la producción científica*. Santanderren, 2018ko maiatzaren 10etik 12ra.
- ✓ (6) "The doctoral theses supported by the SGIker Platforms of the University of the Basque Country are aligned with the Horizon 2020 Program". *XV Foro Internacional sobre la evaluación de la calidad de la investigación y de la producción científica*. Santanderren, 2018ko maiatzaren 10etik 12ra.
- ✓ (7) "X Ray Diffraction for Materials Research". *8th Baikal International Conference "Magnetic materials, new technologies"*. Irkutsken, Errusian, 2018ko abuztuaren 24tik 28ra.
- ✓ (8) "El método DANTINK y otros avances". *X Congreso de la Sociedad de Peritos de Documentoscopia*. Salamankan, 2018ko urriaren 24tik 26ra.
- ✓ (9) "Aplicaciones de RMN en estado sólido al estudio de polimorfos en productos farmacéuticos". *IV Simposio de Resonancia Magnética Nuclear del Postgrado en Química*. Guadalajara, Jaliskón, Mexikón, 2018ko azaroaren 5etik 9ra.
- ✓ (10) "Aplicaciones de la espectroscopia RMN en alimentos: Manzanas y sidras del País Vasco". *IV Simposio de Resonancia Magnética Nuclear del Postgrado en Química*. Guadalajara, Jaliskón, Mexikón, 2018ko azaroaren 5etik 9ra.

## 4.4. Internazionalizazioa

Hainbat adierazle hartzen dira kontuan SGikerren jardueraren internazionalizazioaren islatzat. Adierazle horiek erakusten dute atzerriko zenbat erakunde dauden, nazioko erakundeen aldean; halaber, SGikerrek babestutako nazioarteko tesien ehunekoa azaltzen dute, UPV/EHU guztiko nazioarteko tesien ehuneko osoaren aldean.


Adierazle horiek honako 17.eta 18. iruditan eta 11.taulan jaso dira.



17. irudia. Nazioko eta atzerriko erakunde kontratatzaileen bilakabidea.


| JATORRIAREN ARABERA | ERAKUNDEAK (ZERBITZUAK) | UNIBERTSITATEAK (ZERBITZUAK) |
|---------------------|-------------------------|------------------------------|
| Frantzia            | 2 (8)                   | 1 (1)                        |
| Erresuma Batua      | 1 (1)                   | 1 (1)                        |
| Ekuador             | 1 (1)                   | 1 (1)                        |
| Italia              | 1 (14)                  | - (-)                        |
| Alemania            | 1 (1)                   | - (-)                        |
| Errusia             | 1 (1)                   | - (-)                        |
| Suitza              | 1 (1)                   | - (-)                        |
| <b>Guztira</b>      | <b>8 (27)</b>           | <b>3 (3)</b>                 |

11. taula. Kanpoko erakundeen jatorrizko herrialdeak, unibertsitateak diren adierazita.




18. irudia. Atzerriko erakundearen ehunekoaren bilakabidea, kanpoko kontratatzaile guztien aldean.

2018. urtean SGIker Zerbitzuen eta Unitateen laguntzarekin egindako argitalpen guztien % 53 beste herrialde batzuetan ikerketa erakundeekin elkarlanean egin dira, batez ere Frantziako, Errusiako eta Estatu Batuetakoekin, baina baita Ingalaterra, Italia eta Alemaniakoekin ere, grafiko honetan dierazten den moduan, hainbat egileren afilazazio erakundeekin bat etorritik (19. irudia).




19. irudia. SGIkerrek lagundutako eta beste herrialde batzuetako ikertzaileekin lankidetzan eginiko argitalpenak.

2018an UPV/EHUn SGIkerren laguntzarekin defendatutako doktorego tesiei dagokienez, % 69 nazioarteko tesiak dira, eta SGIker Zerbitzuak eta Unitateak erabiltzen diutzen ikertzaileek batez ere Estatu Batuetan, Alemanian eta Erresuma Batuan egin dituzten ikerketa egonaldiak.



20. irudia. SGiker zerbitzuak erabiltzen dituzten doktorego aurreko ikertzaileek ikerketa egonaldia zein herrialdetan egin duten.

Azkenik, SGikerren unitateek lagunduta egindako nazioarteko tesien % eta UPV/EHUREn nazioarteko tesien % konparatu dira (21. irudia).



21. irudia. SGikerrek lagundutako nazioarteko tesien eta UPV/EHUko nazioarteko tesien ehunekoaren konparazioa.

## 4.5. SGikerren prestakuntza eskaintza

---

### Prestakuntza eta dibulgazio jarduerak gazte eta ikasleekin

---

2018. urtean, ondoz ondoko zortzigaren urtez, SGikerrek 4 neska ikasle eta 3 mutil ikasle (7 guztira) hartu dituzte goi mailako prestakuntza moduluetatik, beren prestakuntza lantokietan egindako praktiken bidez osa dezaten (3 hilabeteko egonaldia). Ikasle horien erreferentziazko ikastegiak (dagozkion hitzarmenak sinatu dira) Goi Mailako Lanbide Heziketako Elorrieta Erreka Mari Institutua eta Goi Mailako Lanbide Heziketako San Jose de Calasanz Institutua dira.

Egonaldiaren amaieran, ikasleek praktiken amaierako memoriak aurkeztu zizkieten programako irakasle tutoreei, 2018ko maiatzaren 15ean eginiko dibulgazio jardunaldi baten bidez.

Jarduera honen barruan, nabarmentzekoa da tutore gisa jardun duten SGikerretako teknikari bat "programako irakaslerik onena" izateko hautagai gisa proposatu zela.

Bestelako dibulgazio eta prestakuntza modalitateak dira etorkizuneko gazte ikertzaileentzat antolatutako jarduerak (ikertzaile bokazioa sortzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle gazteen artean). Zehazki, Bilboko La Salle ikastetxeko 37 ikaslek parte hartu dute 2018ko urtarilean eginiko hiru jardueratan.

Leioako Artaza-Pinueta ikastetxeko 7 urteko hamar umek (6 mutil eta 4 neska) parte hartu zuten joan den abenduaren 11n Zientzia eta Teknologia Fakultatean (Bizkaiko Campusa), Leioako Udaleko Udalezkuntza Sailarekin lankidetzan, antolatutako hiru lantegietan. Lantegi horiek 2018-19 ikasturtean ezarritako Eskola SGiker Programaren baitan egin ziren, eta helburu zuten jarduera zientifikoa haurrei hurbiltzea eta, era horretara, jarduera zientifikoarekiko interesa sortzea. Lantegiok Erresonantzia Magnetiko-Nuklearra, X izpiak: molekulak eta materialak, Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala eta Fitotroi eta Berotegi zerbitzuetan egin ziren.

Aurreneko aldiz, Kimika Graduako ikasle batek Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentralean egin du gradu amaierako lana.

### Ikerketarako teknologiak: prestakuntza eskaintza

---

SGikerren prestakuntza eskaintzari dagokionez, adierazi behar da UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera ziurtatu dela SGikerren jarduera arlo guztietan egiten diren prestakuntza etengabeko ikastaroen diseinu, eskaintza, irakaskuntza eta ebaluazio prozesu guztia.


Eskaintzan irakatsitako ikastaroei dagokienez, 2018an 20 prestakuntza ekintza egin dira (12. taula).



| IKASTAROEN ESKAINTZA ETA ESKAERA            | 2014      | 2015      | 2016      | 2017      | 2018      |
|---------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| <b>Guztira emandako ikastaroak</b>          | 18        | 16        | 25        | 17        | 20        |
| <b>Eskaintzako ikastaroak</b>               | 16        | 16        | 20        | 15        | 16        |
| <b>Ikastaro bereziak</b>                    | 2         | 0         | 5         | 2         | 4         |
| <b>Eskaini eta eman ez diren ikastaroak</b> | 8 (%30,7) | 7 (%29,2) | 8 (%24,2) | 7 (%29,2) | 4 (%16,7) |

12. taula. Prestakuntza eskaintzaren adierazle nagusiak.

2018an emandako prestakuntzaren iraupen osoa 393 ordukoa izan da (22. irudia). Emandako prestakuntzaren batez besteko iraupena ikasturteko 19,65 ordukoa izan da (20,29 ordu/ikasturte 2017an).



22. irudia. 2014-2018 artean emandako prestakuntza orduen bilakabidea.

2018. urtean 171 pertsona aritu dira SGikerretan prestakuntza hartzen, irakasleak, senior ikertzaileak, junior ikertzaileak, doktorego aurreko ikasle eta ikertzaileak, eta enpresetako langileak gehituta. Datu horiek 13. taulan ageri dira.

| PARTE-HARTZAILEAK                  | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|------------------------------------|------|------|------|------|------|
| <b>Parte-hartzaile kopurua</b>     | 154  | 134  | 289  | 195  | 171  |
| <b>Eskaintzako ikastaroetakoak</b> | 146  | 134  | 167  | 139  | 127  |
| <b>Ikastaro berezietakoak</b>      | 8    | 0    | 122  | 56   | 44   |


13. taula. SGiker zerbitzuen prestakuntza eskaintzako parte-hartzaile kopurua.

Neurrira egindako ikastaroetako parte hartzaile kopurua jaitsi egin da; izan ere, 2016an Zientziometria Unitateak ikastaro bat eman zuen UPV/EHUko SAE-HELAZentzat (hala eskatu zutelako), eta denera 85 irakaslek eta ikaslek parte hartu zuten. Horregatik egon ziren hainbeste parte hartzaile 2016. urtean neurria eginiko ikastaroetan, 2017. eta 2018. urtekoekin konparatuta.


2019rako prestakuntza eskaintza webgune honetan ikus daiteke:

<http://www.ehu.eus/es/web/sgiker/prestakuntza/prestakuntza-eskaintza>

23. eta 24. irudietan ageri da 2018ean eskainitako prestakuntza jardueren kopurua, aurreko urteetakoekin alderatuz; halaber, eskainitako ordu kopurua zehazten da.



23. irudia. Urteetako prestakuntza eskaintza 2014-2018 aldian.



24. irudia. Eskainitako orduen arteko alderaketa 2014-2018 aldian.

14. taulan unitateek 20 emandako prestakuntza eskaintzako ikastaroen zerrenda agertzen da.

| ZERBITZUA                                                        | IZENBURUA                                                                                                                                                              |
|------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Laser Laborategi Berezia                                         | Laser pultsu ultralaburrak: Sorkuntza, manipulazioa eta aplikazioak (Ingelese)                                                                                         |
| Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia                         | Indar Atomikoen Mikroskopia: Operazio moduak, teknika aurreratuak eta aplikazioak                                                                                      |
| X Izpiak                                                         | X-Izpien Difrakzioa: haman komunea                                                                                                                                     |
| X Izpiak                                                         | X-Izpien Difrakzioa, 1. Espezialitatea: Lagin polikristalina                                                                                                           |
| X Izpiak                                                         | X-Izpien Difrakzioa, 2. Espezialitatea: Monokristaleen analisisa                                                                                                       |
| Mikroskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisisa Zerbitzua | Transmisiozko Mikroskopia Elektronikoaren Oinarriak Materialen Zientzian                                                                                               |
| Genomika: Proteomika                                             | Proteomikaren Aplikazioak: Identifikazioa, Kuantifikazioa eta Itzulpen Ondoko Aldaketak                                                                                |
| Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan     | Mikroskopia fokukidearen, mikroskopia elektronikoaren eta fluxu zitometriaren oinarriak eta aplikazioak biomedikuntzan                                                 |
| Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan     | Mikroskopian imajin digitala                                                                                                                                           |
| Fitotroi eta Berotegi Zerbitzua                                  | Ingurumen-laginen analisisa teknika analitikoaren bidez: Kromatografia ionika (IC), induktiboki akoplatutako plasmaduna (ICP), erresonantzia magnetiko-nuklearra (EMN) |
| Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Berezia (MAKLAB)       | RAMAN espektroskopiaren oinarriak eta aplikazioak                                                                                                                      |
| Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala                           | Tandem masa espektrometriara akoplatutako kromatografia likidoko (UHPLC) ikastaroa (operazioa eta aplikazioa QQQn eta hastapena Q-TOFn)                                |
| Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala                           | Gas-kromatografia masen hautematearekin. Ikastaro teoriko eta aplikazio praktikoak                                                                                     |
| Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala                           | Datu-bolumen handien aldagai anitzeko tratamendu estadistikoa                                                                                                          |
| Arabako Analisirako Zerbitzu Zentrala                            | Gas-kromatografia masen hautematearekin, aplikazio praktikoak (Kurtso eskatua)                                                                                         |
| Arabako Analisirako Zerbitzu Zentrala                            | Masa espektrometriara akoplatutako kromatografia likidoko (LC-MS) introduzioa, QQQen analizadoreetan aplikazioak eta hastapena Q-TOFn (Kurtso eskatua)                 |
| Zientziometria                                                   | Ikerketa jarduerak hasteko tailerrak (prestakuntza eskaintzakoa)                                                                                                       |
| Zientziometria                                                   | Informazioaren estrategiak eta baliabideak ikertzeko ekonomiaren eta enpresaren arloan (kurtso eskatua)                                                                |
| Zientziometria                                                   | Ikerketa jarduerak hasteko tailerrak (kurtso eskatua)                                                                                                                  |
| Ikerkuntzarako Informatika Aplikatua                             | Meeting of Information Technology Managers of the Basque Science, Technology and Innovation Network                                                                    |


14. taula. 2018an emandako ikastaroen zerrenda.

## Masterrak eta doktorego programak

2018. urtean, ezagutza zabaltzeko jardueren artean, SGIkerren 16 unitatek giza laguntza eta laguntza teknikoa eman dute: guztira 43 prestakuntza eta ikerketa ekintza egin dira, UPV/EHUko 15 masterretan (247 ordu). Horien artean berezko titulo bat dago, unibertsitate arteko lau master daude, eta beste atzeritar unibertsitate arteko bat, Ingeniaritza Biomedikoa Unibertsitate Masterra (15. taula, 25. irudia). Master hauetan 386 pertsonak parte hartu dute (249 emakume eta 137 gizon).

|    | <b>IZENBURUA</b>                                                                                   | <b>ARLOA</b>                              | <b>MOTA</b>                     |
|----|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|---------------------------------|
| 1  | Onarrizko Onkologia eta Klinika Masterra                                                           | Biomedikuntza                             | Berezko titulua                 |
| 2  | Analisi forentsea Unibertsitate Masterra                                                           | Bizi Kalitatea eta Osasuna                | Unibertsitatekoa                |
| 3  | Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Masterra                                      | Biomedikuntza                             | Unibertsitate artekoa           |
| 4  | Elikadura-Kalitatea eta Segurtasuna Unibertsitate Masterra                                         | Elikagaien Zientzia eta Teknologia        | Unibertsitatekoa                |
| 5  | Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra                                     | Ingurumena                                | Unibertsitatekoa                |
| 6  | Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatzak Unibertsitate Masterra                        | Ingurumena                                | Unibertsitatekoa                |
| 7  | Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Unibertsitate Masterra | Enpresa eta Ekonomia                      | Unibertsitatekoa                |
| 8  | Enologia Berritzailea Unibertsitate Masterra                                                       | Elikagaien Zientzia eta Teknologia        | Unibertsitatekoa                |
| 9  | Máster Universitario en Ingeniería Biomédica Unibertsitate Masterra                                | Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna | Atzeritar unibertsitate artekoa |
| 10 | Nautiko eta Itsas Garraioa Unibertsitate Masterra                                                  | Ingeniaritza eta Teknologia               | Unibertsitatekoa                |
| 11 | Ikerketa Biomedikoa Unibertsitate Masterra                                                         | Biomedikuntza                             | Unibertsitatekoa                |
| 12 | Material Berriak Unibertsitate Masterra                                                            | Fisika, Kimika eta Materialak             | Unibertsitate artekoa           |
| 13 | Kimika Sintetiko eta Industrialak Unibertsitate Masterra                                           | Fisika, Kimika eta Materialak             | Unibertsitate artekoa           |
| 14 | Kimika Teorikoa eta Modelizazio Konputazionala Unibertsitate Masterra                              | Fisika, Kimika eta Materialak             | Unibertsitate artekoa           |
| 15 | Material Berriztagarrien Ingeniaritza Masterra                                                     | Fisika, Kimika eta Materialak             | Unibertsitatekoa                |

15. taula. 2018an SGIkerrek parte hartu duten unibertsitate masterren zerrenda.




25. irudia. Masterren urterik urteko banaketa, ezagutza arloen arabera.

## Dibulgazio bisitak SGikerretako unitateetara


UPV/EHuren ikusgaitasuna da helburu estrategikoetako bat. Kazetariak, teknologoak, ikertzaileak, irakasleak eta ikasleak urtero bisitatzen dituzte SGIkerrak.

2018. urtean, SGIkerrak 49 bisita hartu dituzte guztira. Horien ondorioz, ikerketaren esparruarekin lotutako hainbat profiletako 509 pertsonak aurrez aurre ezagutu dituzte gure instalazioak, teknikak, ekipamenduak eta gure langileen kualifikazio handia. 509 pertsona horietatik 362 UPV/EHUrekin dute lotura (178 emakume, 161 gizon eta 23 ez binario), eta 147 kanpoko erakundeetakoak dira (67 emakume eta 80 gizon).

